



OSAKIDETZA - EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK 2019KO URTARRILAREN 7AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

Kontseiluburuak deituta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Osakidetzaren egoitzan bertan, 2019ko urtarrilaren 7an, 13:30ean. Honako hauek dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

BILERARA DEITUTAKOAK:

KONTSEILUBURUA

Jon Darpón Sierra jauna

KONTSEILUBURUORDEA:

Iñaki Berraondo Zabalegui jauna

KIDEAK:

Alberto Alberdi Larizgoitia jauna
Hernando Lacalle Edeso jauna
Fátima Ansotegi Elordi andrea

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jauna

Kontseiluburuak gonbidatuta, Juan Luis Diego Casals Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia ere deitu da kontseiluaren bilerara.

GAI-ZERRENDA

LEHENA.- Kargu-uzteak eta izendapenak

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. atalean aurreikusitakoaren arabera eta Osakidetza erakunde publikoaren Estatutu Sozialen 8.5g) atalean (azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua) ezarritakoari lotuz, Administrazio Kontseiluak honako erabaki hauek hartu ditu.

ERABAKIAK:

Lehena.- Juan Carlos Soto Pérez jauna Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko erakunde zentraleko giza baliabideen zuzendariaren kargutik kentzea, hark eskatuta. Izendatu zenetik egin dituen zerbitzuak eskertuko zaizkio.

Erabaki honek 2019ko urtarrilaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Bigarrena.- María Pilar Uriarte Brizuela andrea izendatzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko erakunde zentraleko giza baliabideen zuzendari.

Erabaki honek 2019ko urtarrilaren 9tik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.- Ricardo Ituarte Azpiazu jauna Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko erakunde zentraleko ekonomia eta finantzako dibisioaren zuzendariaren kargutik kentzea. Izendatu zenetik egin dituen zerbitzuak eskertuko zaizkio.

Erabaki honek 2019ko urtarrilaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.- José Ramón Calonge Balza jauna izendatzea Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoko erakunde zentraleko ekonomia eta finantzako dibisioaren zuzendari.

Erabaki honek 2019ko urtarrilaren 9tik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Eskaerak eta galderak

Ez dago beste gairik aztertzeko, eta beraz, bilera amaitu da 2019ko urtarrilaren 7an, 14:30ean.



**Sin.: Ibon Etxebarria Olañeta
IDAZKARIA**



**Sin.: Jon DARPÓN SIERRA
KONTSEILUBURUA**